

## KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN		NAFARROAN	
47	6	72	6
positibo berri*	hildako	positibo berri	hildako
223	79	554	195
positibo guztira	ospitalizatuta	positibo guztira	ospitalizatuta

\*Hernanin 4 Astigarragan 3

## «Txotx denboraldi laburrena izango da, aurtengoa»

Koronabirusa dela eta, Urumea bailaran hainbat neurri hartu dira, haietako bat Txotx denboraldia etetea, eta horrekin batera, tabernek ere ateak itxi dituzte.

HERNANI TABERNAK

Covid-19 edo Koronabirusak eragindako egoera honen aurrean, sagardo denboraldia etetea neurriak hartu ziren bai Hernanin zein Astigarragan, eta horrekin batera tabernak ixtea ere erabaki zen. Hori horrela, Hernaniko *Ekos*, *Haida* eta *Guria* tabernek, euren iritziak partekatu nahi izan dituzte eta egoera nola bizi duten ere deskribatu diote Kronikari.

Koronabirusak, kaleak hustu ditu, eta hainbat komertzio itxi, *Ekos* tabernako jabeek azaldu dute, momentuz, 15 egun ixtearen agindua jaso zutela, baina argi daukate, gehiago luzatuko dela, «garai onenean gainera!». *Haida* tabernako jabea ere bat dator, izan ere, «egoera oso larria denez, 15 egun baino gehiago iraungo du honek, eta tabernek itxita jarraitu beharko dute, tamalez». *Guria* tabernak, bere ateak itxi behar izan ditu, jarri diren prebentzio neurriak direla eta, eta adierazi dute, ostiral goizean denak ohiko bizitza normala egiten ari zirela, «baina bat-batean harrapatu gintuen honek guztiak, eta ez genuen inajinatuko puntu honetara ere iritsiko ginenik».

Martxoa amaitzean da, eta etorkizun hurbil bati begira, *Ekos* tabernak, uste du, gutxienez hilabete iraungo duela itxierak. «Guk zoritxarrez ezer gutxi egin dezakegu... Ezarritako neurriak bete eta beste gauza batzuk egiteko aprobetxatu, hala nola, garbiketara, inbentarioa...». *Haidak* dio, egoera larria de-



Gaur larunbata, txotx girok ez, eta tabernak itxita.

nez, krisi bat egongo dela, «egia esan, esan daiteke krisi batean sartuak gaudela jadanik. Hala ere, uste dut, herritarrok gure eskuetan dagoena egin behar dugula, eta lanean jarraitu, birusari eta egoerari aurre egiteko». *Guria* tabernakoek ere antzera, «egia esan etorkizun iluna ikusten dugu», gainera, azaleratu dute bakoitzak egoera ezberdin bat daukala, baina «denak aterako gara kaltetuak egoera honetatik». Argi dute, beraien eskuetan dagoena egin dutela, «taberna itxi dugu eta etxean sartuta gaude egun osoa, gainontzekoa mediku eta erizainen eskuetan dago, beraz beraien jarri behar dugu konfiantza».

Txotx irekiera eteteak, uste-kabeen harrapatu zituen hainbat hernaniar eta behar bada, taberna eta komertzioak. Hala ere, *Ekos* tabernak adierazi du, beraien ustez erabaki logikoa dela sagardotegiak hartutakoa, «eta guk, tabernariak, berdina egin dugu egoerak hori eskatzen duelako». Hala ere, azpimarratu du, «ekonomikoki kolpe gogorra, harik eta gehiago gaueko giroak azkenaldian duen ebo-

luzioa ikusita. Azkenean gurtzat, txotx garaia oso garrantzitsua da, urteko bolada txarrak pasa ahala izateko gehienbat». *Haidak* dio, txotx denboraldia atzeratzeak, kalteak ekarriko dituela, «batez ere Hernani eta Astigarragako tabernei eta noski sagardogile eta sagardotegiei. Logikoa dirudit egin dutena, baina, egoera normalera itzultzeko gogoz nago, ea laister konpontzen den kontu guzti hau». «Ematen duenez inoiz baino txotx denboraldi motzagoa izango da» dio *Guria* tabernak, gainera, honek duen eragin kaltegarriaz ere jardun du, «hilabete pasatxo generaman txotx denboraldia hasi zenetik, baina beti ere jende gehien biltzen duen hilabetea martxoa izaten da. Txotx denboraldiak sektore askotan eragiten du eta honek kalte handiak ekarriko dizkigu bati baino gehiagori... Ea behintzat txotx denboraldiaren azkeneko hilabeteaz gozatzeko aukera daukagun!»

Hartu diren prebentzio neurriak, berriak dira tabernarientzat, ez baitute horrelako egoera larririk bizi izan inoiz. *Ekos*ek dio, denentzat bezala, beraien-

tzat ere berria dela egoera, «ez dakit noizbait izan den horrelako egoerarik. Gainera ostalaritza izan da neurri hauek gehien jasaten ari den sektoreetako bat, pentsa, gure soldatak, alokairua eta gastu gehiago... hauek ez dira eteten». *Haidako* tabernako nagusiak, urteak daramatza tabernan lanean, eta argi utzi du ez duela honelako neurriak hartu behar izan «25 urte daramazkit *Haidan* buru belarri, eta ez zait sekula halakorik gertatu. Honek, kalte handia egingo digu ekonomian, eta oso zaila izango da urtean zehar honi buelta ematea». *Guria* taberna bat dator, izan ere, «taberna horrelako hilabete batean ixtea, oso kaltegarria da ostalaritza munduan lan egiten duenarentzat», halaber neurriak hartzea erabaki dute, eta «tokatutako egoerari aurre egiten saiatuko gara».

Etxean gelditzeko agindua ere luzatu du Gobernuak, eta tabernariak, euren egunerokotasuna kontatu digute. *Ekos*ek dio, «momentuz ondo esan behar, oraindik egun gutxi batzuk besterik ez dira pasa. Baina argi dago oso luze egingo zaigula, nahiz eta badaukagun zer egin,

noiz arte luzatuko den, eta zer gertatuko den ez jakiteak ezin egon handia sortzen du. Egunkari pasa ahala, gero eta gogorragoa izango da, ziur». *Haidako* nagusiaren egunerokotasuna zeharo aldatu dela ziurtatu du, «orain denen antzera, ez naiz etxetik irteten, txakurra ateratzen eta behar beharrezko gauzak egitera, bestela egun osoa etxean pasatzen dut, familiarekin. Astuna da, 24 orduz etxean egoiteak ez du laguntzen, eta saiatzen naiz buruari ez buelta asko ematen». *Guria* tabernak dio, erabat aldatu zaiela bizitza, «ez gaude ohituak egun osoa etxean pasatzera, gainera denbora gutxian albiste berdinak entzun eta irakurtzen... Hala ere, oraindik eta zorionez, humorea ateratzen duen jende asko dago inguruan, eta berrogeialdi hau eramangarriagoa egiten dutel!».

Neurri hauek, beharrezkoak diren edo ez galdetu diegu eta *Ekos*ek baiezkota dio, «esango nuke berandu hartu direla erabakiak, beste herrialdeetan gertatutakoa ikusita, argi zegoen honaino iritsiko zela». *Haidako* berriz, aipatu du, aspaldi hartu beharreko erabakiak zirela duela gutxi hartutako prebentzio neurri hauek. Hala ere, «herritarren esku daude gauza asko, esaterako etxean geratzea ez kutsatzeko, eta gure esku dagoena egin beharko genuke, lanean jarraituz». *Guria*koen ustez ez dira jakitunak honetan, baina, «egoeraren larritasuna gutxi ez denez, esaten diguten neurriei kasu egitea besterik ez zaigu gelditzen!».

### Herritarrentzat animoak, datozen egunetarako

Tabernariak, amaitzeko gehitu dute, gustatuko litzaiekela denek erresposabilitate minimo bat hartzea, «egoera hau ahalik eta azkarren pasatzen laguntzeko, lehenbailehen normaltasunera itzuli ahal izateko. Gainera ez goaz bide txarretik eta denak saiatzen bagara lortuko dugu. Animo denoi, pasako da eta!».



**FUNERARIA  
ORBEGOZO  
BEILATOKIA**

### Asegururik ba al duzu? Deitu Orbegozora

24 orduko tlfnoa.  
**943 33 10 20** [www.funerariaorbegozo.com](http://www.funerariaorbegozo.com)

- \* Zerbitzu partikularrak eta aseguru etxeekin
- \* Beilatokiak
- \* Errausketak
- \* Lekualdatzeak
- \* Eskelak, koroak...



Zentrala - Latsunbe 7, Hernani  
HERNANI · ANDOAIN · ASTIGARRAGA · URNIETA · GOIZUETA

